

# ZARATA



10 URTE IGARO DIRA  
LEZOKO IKASTETXEETAN  
ESKOLAKO AGENDA 21  
IZENeko HEZKUNTZA-  
PROGRAMA 2007-  
2008 IKASTURTEAN  
ABIARAZI GENUENETIK.  
URTE HAUETAN ZEHAR  
INGURUMENAREN  
BABESAREKIN ZERIKUSIA  
DUTEN ARLOAK  
LANDU DITUGU: URA,  
ENERGIA, HONDAKINAK,  
BIOBIBERTSITATEA,  
ELIKADURA,  
MUGIKORTASUNA ETA  
KONTSUMO ARDURATSUA.  
IKASTURTE HONETAN  
ZARATAREN GAIA  
AZTERTZEKO AUKERA IZAN  
DUGU.

AURTENGOAN LEZOKO 3  
IKASTETXEK PARTE HARTU  
DUGU PROGRAMAN, 800  
BAT IKASLE BILDUZ. BAINA  
LANKETA HORRETAN EZ  
GARA BAKARRIK EGON:  
IRAKASLEEN, GURASOEN,  
IKASTETXEETAKO  
GAINERAKO LANGILEEN ETA  
UDALAREN LAGUNTZA IZAN  
DUGU. HORREGATIK,

*Mila esker guztioi!*



SE CUMPLEN 10 AÑOS DE LA AGENDA 21  
ESCOLAR EN LEZO, DURANTE LOS CUALES  
HEMOS TRATADO MUCHOS TEMAS:  
AGUA, ENERGIA, RESIDUOS, ... ESTE  
AÑO, ALREDEDOR DE 800 ESCOLARES  
HEMOS TRABAJADO EL TEMA DEL RUIDO  
CONTANDO CON LA AYUDA DE TODA LA  
COMUNIDAD ESCOLAR

*¡Muchas gracias!*

# AURKIBIDEA

- 03 NOLAKOA IZAN DA PARTE-HARTZEA?
- 04 ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZEHAR?
- 14 HERRIKO DIAGNOSIAREN ONDORIOAK
- 16 ESKOLAKO KONPROMISOAK
- 18 UDALARENTZAKO ESKAERAK
- 20 ETA HURRENGO IKASTURTEAN, ZER?



## NOLAKOA IZAN DA PARTE-HARTZEA?

Maiatzaren 22an ospatutako  
Eskolarteko Foroan, ikasleok,  
Eskolako Agenda 21en zati garen  
eragileon partaidetza nolakoa  
izan den baloratu genuen:

- Ikasle eta irakasleen parte-  
hartzea egokia izan da,  
aurreko ikasturtean lortutako  
emaitza mantenduz.
- Eskolako langileen eta  
gurasoen partaidetza,  
bide zuzenean doan arren,  
oraindik badute zer hobetu.

En el foro interescolar celebrado  
el 22 de mayo evaluamos la  
participación en la Agenda 21  
Escolar: tanto la participación del  
alumnado como del profesorado es  
buena, mientras que la del personal  
no docente y familiares, aunque va  
en buen camino, es mejorable.

**I**kasleak



**G**urasoak



**I**rakasleak



**E**skolako langileak



# ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZE HAR?




IKASTURTE HONETAN ZE HAR GAUZA  
MORDOA EGIN DUGU ZARATAREN  
GAIA LANTZEKO. JARRAIAN LEZOKO  
ESKOLA BAKOITZAK BURUTU  
DUGUNAREN LABURPENTXOA DUZUE

## LEZO HERRI ESKOLA

- Lehen-hezkuntzan musikako irakaslearekin "Zarata eta soinuak" gaia landu dugu. Bideo desberdinak ikusi eta esperimendu bereziak egiteko aukera izan dugu.
- Lehenengo mailako gela, eskolako irratiara joan ginen otsailean. Zarata eta soinuari buruz hitz egin genuen eta baita zarata egiten badugu gaixotu gaitezkeela ikasi ere.
- Laugarren mailako ikasleek 6. mailakoei gaiaren inguruko elkarrizketa bat egin diete, soinuaren eta zarataren inguruan dituzten iritzia eta ohi-turak ezagutarazteko.



- Hirugarren zikloan eskolako zarataren ikerketa egin dugu, gure eskolako soinu-mapa osatuz. Zarata-maila kalkulatzeko sonometro eta mugikorrenzako aplikazio bat erabili dugu. Neurketak ordu eta guneez egiten dira: jangelan, ikasgelan, korridoreetan, patioan ...
- Uzta oparoa lortzeko eta osasuntsuago jateko baratza saioak egin ditugu. Bertan barazkiak nola landatu eta zaindu ikasi dugu.
- Hainbat bolondresi esker, aurtengo ere, Patruila berdea lanean aritu da, eta gure eginkizunen artean gaikako zabor biltzea egitea izan da.
- Hamaiketako osasuntsua bultzatzen jarraitzen dugu, horretarako frutaren eguna ospatzen dugu astero.
- Ekogunera bisita egin dugu eta abeletxea ikusteaz gain ura eta kontsumo arduratsuak zerbait ikasi dugu.
- Apirilaren 25ean, zarataren nazioarteko eguna zenez, 6. mailako ikasleek lehen hezkuntzako geletan zarataren inguruan egindako lana azaldu eta eskolako zarata-mapa aurkeztu genuen.




  
**Lezo**  
Herri Eskola



## LEZO INSTITUTUA

- Urriaren 26an, Gorputz Hezkuntza, Natur Zientziak eta Agenda 21eko arloak uztartuz, 1. DBHko ikasleekin bizikleta irteera bat antolatu genuen Lezotik Arditurrira. Bertan, Arditurriko interpretazio zentroa eta garai bateko meategia bisitatzeko aukera eduki genuen. Honekin lagunarteko kirol zaletasuna, naturarekiko interesa eta mugikortasun iraunkorra bultzatu nahi izan genuen. Egun ederra izan zen denontzat, ikasleek oso ongi pasa zuten eguna eta esperientzia polita eta aberasgarri edukitzeko aukera izan genuen
- 1. mailako ikasleek Añarbeko uren araztegira egin genuen bisita. Bertan Añarbeko araztegian biltzen den ura, edangarria izateko prozesua ikusi ahal izan genuen; zein tratamendu eman behar zaion ur horri gure etxe-



etara edangarri iristeko, eta zeintzuk diren lortzen diren emaitzak. Honekin, ikasleek uraren gehiegizko kontsumoaren inguruan hausnarketa bat egi-  
tea, eta uraren garrantziaz ohartaraz-  
tea helburu zuen egitasmoa burutzea lortu da.

- Zarata arazoari hurbiltzeko eta institu-  
tuan dagoen zarata-maila aztertzeko,  
ariketa ezberdinak burutu ditugu: so-  
nometro baten bidez eguneroko klase  
batean topa dezakegun zarata-maila  
neurtu eta horrek klasea aurrera era-  
mateko suposa dezakeen oztopoa  
hausnartu; mugikorretarako aplika-  
zioak erabiliz atariko zarata-maila  
neurte, etab.
- Sentikortzeko helburuarekin gaiarekin  
zerikusia duten kartelak eta horma-  
irudiak prestatu ditugu.
- Altamirako zenbait puntutan neurketak  
egin genituen: igerilekuan, pilotalekuan,  
anfiteatroan eta etxebizitzetan.



- Soinu kutsaduraz sentsibilizatzeko eta soinua eta zarataren arteko ezberdintasunak ulertzeko ekintza ugari egin ditugu: bideoak ikusi, naturaren eta eskolako soinuak entzuteko saioak antolatu ... Gainera, korridorean sortzen dugun iskanbilaz ohartzeko klaseko ate irekien astea antolatu dugu.
- Pagoetako parketxera txangoa egin genuen. Bertan ogia egin eta errota bisitatzeaz gain inguruko soinu ezberdinak sentitzen eta entzuten ibili ginen: ur jauzia, txoriak, haizea ...
- Bide-hezkuntzako saioak egin ditugu. Herrian ditugun arriskuak identifikatzeak gain, kalera irten gara udaltzainarekin modu praktikoan arrisku horiek identifikatzeko eta ikasteko. Udaltzainen zeregina ere ezagutu dugu.
- Gelako oihartzuna gutxitzeko kartoizko eskulanak egin ditugu eta gero gelan zintzilikatu ditugu.
- Txoko berdea aurten ere ikastetxean jarri dugu, eta zaratari buruz landu ditugun informazio ezberdinak zabaldu ditugu bertan.
- Jaizkibel, gure mendiko txokoak, ezagutzen eta txoko berriak zelatatzen ibili gara, bertako soinu eta paisaiatz gozatuz.
- Gure ikastetxeko egoera zein de jakiteko, neurketa ezberdinak egin ditugu eta ondoren eskolako zarata-mapak osatu ditugu.



Durante el curso escolar hemos llevado a cabo un montón de actividades: salidas para conocer la opinión de la ciudadanía, identificar los ruidos y sonidos de nuestro entorno, sensibilizarnos sobre los efectos nocivos de la exposición al ruido, etc.




# HERRIKO DIAGNOSIAREN

## ONDORIOAK

**AZKEN HIRUHILEKOAN, ZARATAREN DIAGNOSTIKOA LANTZEKO, KALE-GALDETEGIAK ETA NEURKETA EZBERDINAK BURUTU DITUGU HERRIKO ONDORENGO GUNEETAN: SALDISE PLAZA, PYSBE, EUSKAL HERRIA PLAZA, POLENTZARRENE, KIROLDEGIAN, ETAB. HONA HEMEN ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK:**


### NEURKETEN ONDORIOAK:

- Portua eta trafikoa dira herriko zarata-iturri nagusiak, batez ere azpiegitura hauetatik gertu bizi direnentzat.
- Festetan edo jaialdietan musika emanaldiak eta jarduerak zarata-foku nagusiak dira, batez ere Saldise plaza inguruan.
- Kaleko garbiketa-makinek (eta zaborra biltzeko kamioiak) zarata puntuala sortzen badute ere, hau oso desatsegina izaten da.
- Altamira parkean kalitate akustikoa ez da txarra, batez besteko zarata-maila neurri egokian mantentzen delako. Hala ere, frontoian, etxeetan eta anfiteatroan errepidearen ondorioz sortutako zaratak antzematen dira (klaxona, kotxeak...).




### KALE-GALDETEGIEN ONDORIOAK:

- Herritarrei enbarazu gehien sortzen dieten zarata motak kaian sortutakoak dira. Herritar askok trafikoaren eta tabernen zaratak ere aipatu dituzte. Gutxiago aipatu diren zaratak: kaleak garbitzeko erabiltzen diren makinaren zarata.
- Eskolako alarma gau askotan martxan jartzen dela salatu dute gutxi batzuk.
- Etxe barruan, bizilagunen aparatu elektronikoak, garraxiak eta oinetakoak dira gehien molestatzen duten zarata motak. Baita etxe barruko obrak ere.
- Klean aurkitzen direnean hauek dira herritarrei enbarazu eragiten dieten zaratak: tabernetan aurkitzen den jendearen ahotsak, portua, anbulantziak, kaleko obrak, kale garbitzaileen makinak eta ibilgailuak.
- Zarataren arazoei aurre egiteko, herritarrek aipatutako ideia nagusia hurrengoak izan da: **elkarren arteko errespetua eta hitz egiteko bolumena jaitsi**. Ondoren, ibilgailu elektrikoa eta bizikleta gehiago erabiltzea izan da.



# ESKOLEK HARTUTAKO

# KON PROMI SOAK



**GUK, LEZOKO IKASLEOK,  
HONAKO KONPROMISOAK  
HARTZEN DITUGU ZARATARI  
AURRE EGITEKO:**

- 1.** Ikastetxean lasai eta isiltasunean ibiliko gara, iskanbilak sortu gabe: korridoreetan, jangelan, atarian, sartu-irteera orduetan ...
- 2.** Hitz egiteko eskua altxa egingo dugu, hitz egiten ari dena entzungo dugu eta hitz egiteko txandak beti errespetatuko ditugu, baita taldeko lana egin behar dugunean ere.
- 3.** Etxean, gelan eta bestelako tokietan oihartzuna gutxitzeko kartoizko eskulanak egin eta zintzilikatuko ditugu.
- 4.** Naturako soinuez disfrutatuko dugu, lasaitasunean eta zarata handirik atera gabe.



- 5.** Lagun batekin hitz egiterakoan berarengana hurbilduko gara eta doinu egokian hitz egingo diogu, oihukatu gabe.
- 6.** Eskolara oinez edo bizikletaz joango gara.
- 7.** Musika doinu egokian jarriko dugu, ondoan dauden lagunei ez eragozteko.
- 8.** Gelan giro atsegina lortzeko paretetan edo lurrean kolpeka ibiltzea saihestuko gara (baita etxean ere), mahaia eta aulkiak altxatuko ditugu arrastaka eraman gabe.

Para hacer frente a la problemática del ruido estos son algunos de los compromisos que hemos adquirido los alumnos y las alumnas de Lezo: no hacer jaleo e ir tranquilos en los centros escolares, especialmente en el comedor y los pasillos; respetar el turno a la hora de hablar; disfrutar de los sonidos de la naturaleza en tranquilidad; no chillar cuando hablemos y si hace falta acercarnos más a la persona, ir al colegio en bici o andando; poner y escuchar música a un volumen razonable que no moleste al resto; etc.





# ZER PROPOSATZEN DIOGU UDALARI?

Herriko diagnosia landu eta bertako emaitzak oinarritzat hartuz, hauek dira Udalari zuzentzen dizkiogun proposamenak:

- Kalean egiten diren musika-emanaldiak, kontzertuak etabar bizilagunei eragozpen gutxien sortzeko hauen ordutegia kontrolatu eta ahal den heinean etxebizitzetatik urrun jarri. Gainera, emanaldiak herriko leku ezberdinetan burutzea soinu-kutsadura bizilagun berberei ez eragozteko.
- Zaborra biltzen dituen kamioien ordutegia aldatu.
- Motordun trafikoa gutxitzeko bidegorri-sarea handitu, oinezkoen eremuak zabaltu eta gunee berde eta parke gehiago sortu.

- Elizaren kanpainaren soinua gutxitu eta ordutegia murriztu.
- Zarata eragiten duten iturri nagusiek araudiak ezarritako mugak betetzen direla ziurtatzeko jarraipen-lanak egitea eta hauek hautsiz gero isunak jarri: tabernak, kalean eta etxeetan egiten diren obrak ...
- Portua, errepideak eta trenbidea sortzen duten zarata maila gutxitzeko neurriak hartu (pantailak ... ). Horretarako, hauen ardurapean dauden erakundeekin udalak elkarlanerako bideak bilatzea.
- Herrian abiadura moteldu eta klaxona debekatu.

- Kale garbitzaileen makinak eta zaborra biltzen dituzten kamioien zarata murrizteko neurriak hartu: automobil elektrikoak bultzatuz, makina isilak erosiz ...
- Autobusak gelditu daudenean, motorra itzaltzeko eskakizuna egitea.
- Kotxe elektrikoak (autobusak ere bai) bultzatzeko neurriak hartu: diru-laguntzak, hobari fiskalak, aparkatzeko leku bereziak, etab.
- Zarata gaiaren inguruko sentikortzeko kanpainak egin eta herrian zehar leku estrategikoetan panel informatiboak jarri.

## ¿QUÉ LE PROPONEMOS AL AYUNTAMIENTO?

Trás estudiar la problemática de la contaminación acústica estas son las propuestas de mejora que hemos expuesto al Ayuntamiento: controlar el horario y lugar de celebración de conciertos y actividades que produzcan ruido; ampliar la red de bidegorris y calles peatonales; buscar soluciones, en colaboración con las instituciones para minimizar el ruido del puerto, el tren y las carreteras; impulsar medidas para favorecer el uso del coche eléctrico (y del autobús); realizar campañas de sensibilización del ruido; etc.



# ETA HURRENGO IKASTURTEAN, ZER?

2018/2019 ikasturtean, lehen aldiz, **KLIMA-ALDAKETA** izango dugu aztergai Lezon, Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten Oarsoaldeko gainerako ikastetxeekin batera. Era berean, aurreko ikasturteetan hartutako konpromisoen jarraipena egiteko aukera izango dugu, landutako gai askok zerikusi zuzena baitute klima-aldaketarekin.

¿Y EL PRÓXIMO  
CURSO, QUE?

El próximo curso escolar trataremos el **CAMBIO CLIMÁTICO** junto con el resto de centros escolares de Oarsoalde de adheridas a la A21E.

